

M
A
N
I
L
A

K
O
Z
E
X
I
O
A

I. P. IKASLEA
2004/05

AURKIBIDEA

Jon Arretxe	2
Sarrera	2
<i>Manila Konexioa</i>	
• Kokapena	2
• Gaia	3
• Argumentua	3
• Gertakizun nagusiak	3
• Egituraketa	3
• Pertsonaiak	4
• Baliabideak	4
• Pasarteak	5
• Iritzia	7
Bibliografia	7

Jon Arretxe



Basaurin jaio zen 1963an. Euskal Filologian doktorea, Heziketa Fisikoan lizentziatua eta pianoko karrera eginda. Landu dituen literatur generoak: nobela, ipuinak, bidaiak-kronikak, etab. Gazteentzako hiru liburu idazti ditu: *Hakuna Matata*, *Harresi Handirantz* eta *Lurraren Taupadak*. Bere bidaietan oinarritutako bi eleberri: *Urrezko Triangelua* eta *Oroituz*. Gazteen bizimoduan oinarritutako ipuin-liburuen trilogia arrakastatsua: *Ostegunak*, *Ostiralak* eta *Larunbatak*. Azkenik, munduan barrena egindako bidaien kronikak: *Tubabu*, *Tuparen seme-alabak*, *Ekialdeko mamuak* eta *Zazpi kolore*.

Sarrera

Liburu hau nahiko berria da, 2003. urtekoa, hain zuzen ere. Obra hau gazteei zuzenduta dago, eta erritmo biziko eleberri bat dela esan dezakegu. Liburu hau nahiko laburra da, 180 orri baino ez dituelako, eta suge baten bahiketari buruz jarduten du, baina berezitasun batekin, kasu hau ikertzen duen detektibea Gadget inspektorea edo Torrente bezalakoa baita. Aipatu beharrekoa ere bada autoreak pertsonaia bakoitzarekin hartzen duen idazteko modua, pertsonaia bakoitzari egokitzen zaion hizkera hartzen du eta. Azkenik, obraren antolaketari buruz hitz egiten, obra hau bost ataletan banatuta dagoela esan behar da, bakoitzean egun batean zehar gertatutako guztia kontatzen delako, eta obra guztia modu jarrai batean kontatuta dagoela.

Kolosala izango da

Kokapena

Obra hau Gasteiz hirian kokatuta dago, espazioari dagokionez. Denboraren aldetik, ez da data zehatzik ematen, baina liburuan zehar ikus daitezkeen pista batzuk ikusita (Alavés lehen mailan zegoela, adibidez), duela bizpahiru urte gertatu zela ondoriozta dezakegu. Bestalde, liburu honetan tratatzen den gai nagusia suge baten bahiketa da. Protagonista detektibe trakets bat da, Simon Artabe deiturikoa eta Torrente edo Gadget inspektorearen antzekoa, begi bistan dauden gauzak ere ikusten ez dituen. Pertsonaia nagusietako batzuk aipatzekotan, Etxebe deitzen dioten Artabe detektibearen laguntzaile pepeloa aipatu kontuan hartu behar dugu, gizon kote hau tontolapiko hutsa baita.

Gaia

Obra honen gai nagusia suge baten bahiketa da.

Argumentua

Dena hasi zen Pilar Ladron de Gebara deituriko andrearen anakonda orojalea bahitu zutenean. Orduan, andre aberats honek Artabe detektibeari kasua ikertzeko eskatu zion. Honek, Etxebe deituriko bere laguntzailearekin hiruzpalau egunetan kasua ikertu zuen, eta Manila izeneko putetxe batean lau mafioso biltzen zirela konturatu ziren. Baina oso traketsak zirenez, ez zuten gauza handirik lortu. Izan ere, eliza batera sartu ziren gaizkileak han egongo zirelakoan, baina gaizkileek harrapatu zituzten. Orduan, Pilar Ladron de Gebara andrea agertu zen Manila putetxearen zerbitzariarekin, eta gaizkileekin tratu bat egin zuen bere sugea jatetxe txinatar bati saltzeko eta pantera arrosak deitzen ziren bizkotxo batzuk *antrax-complex* izeneko substantzia batekin banatzeko, milaka jende hiltzeko konspirazio baten barruan. Azkenean, sugearekin gelaxka batean egon eta gero, ihes egin ahal izan zuten eta poliziarri deitu zioten, konspirazioaren berri emanez.

Gertakizun nagusiak

- Sugearen bahiketa.
- Manila putetxean lau mafioso biltzen zirela konturatzea.
- Eliza batean, gaizkileek detektibeak harrapatzea.
- Gaizkileek milaka jende hiltzeko konspirazioa azaltzea.
- Pilar Ladron de Gebara andrea elizan agertzea eta gaizkileekin tratu bat egitea.
- Detektibeak eta Porky izeneko lagun bat sugea zegoen gelatxora botatzea.
- Azken hauek gelatxo horretatik ihes egitea eta poliziarri konspirazioaren berri ematea.

Egituraketa

Ia obra guztian zehar ikusi ahal da egituraketa lineala dela, momentu puntual batzuetan izan ezik, adibidez: autoreak sugea ezkutatuta zegoen gelatxoan zegoen errumaniar bikotearen berri ematen digunean, zeren eta kapitulu bakoitzeko lehen ataltxoan agertzen baita bikote bitxi hau eta jauzi txiki bat egiten da kontaktaren linealtasunari dagokionez.

Pertsonaiak

Obrako pertsonaiarik nagusienetariko batzuk honako hauek dira, nire iritziz garrantziaren arabera ordenatuta:

- **Simon Artabe:** detektibe trakets bat da, oraindik bere amaren kontu bizi dena, eta gauzak begi bistan izanda ere ikusten ez dituen. Obrako protagonista denez gero, bere papera funtsezkoa da.
- **Etxebe:** Artabe detektibearen laguntzaile mardula da. Hau ere bere amaren bizkar bizi da, eta oso pertsonai tontolapikoa da, Artabe detektibeak engainatzen duelako egunero.
- **Pilar Ladron de Gebara:** andre aberats bat da, jendea gorroto duena eta azkenean gaizkileekin tratu bat egiten duena milaka jende hiltzeko konspirazioa aurrera eramateko.
- **Porky:** Artabe detektibearen lagun kamioilaria, pantera arrosek barruan zer zeukaten jakin barik, hauek hirian zehar banatu behar zituen, baina azkenik, egoeraz jabetu zen eta Artabe detektibeari lagundu zion poliziarri konspirazioaren berri emateko.
- **Baltasar:** Afrikar etorkin bat da, Ondarroako azentua duena. Artabe detektibeari gaizkileen informazioa ematen dio, eta Manila putetxeko emakume batekin maitemintzen da.

Baliabideak

Liburu honen espresaera nagusia narrazioa edo kontakizuna da. Elkarrizketak ere baditu, normalean estilo zuzenean, eta nahiko ugariak dira. Deskribapenak, ordea, ez dira horrenbeste obra honetan.

Orokorrean hitz eginda, egileak esaldi laburrak eta irakurterrazak erabiltzen ditu, liburu hau gazteei zuzenduta baitago.

Liburu honetako kontaketa tankera landua dela esan daiteke, baina aldiz, erraz irakurtzekoa. Narratzailea ez da orojakilea, baizik eta lekuko moduan jarduten da, dena ikusten den bezala kontatuz. Aditzen denbora, normalean, iragana da eta, kontakizuna denez, orokorrean hirugarren pertsona da erabiliena. Bestalde, hiztegiari buruz hitz egiten, nahiko erraza dela uste dut, baina aipatzekoa da herriko hizkerako hainbat hitz erabiltzen direla, adibidez: "melapela", "akojonatuta", "keleden", etab. Bestalde, erritmoa nahiko bizia da.

Tropoei dagokienean, liburu honetan pertsonifikazioak, konparaketak edota metaforak aurkitzea oso zaila dela esan behar da. Izan ere, obra hau gazteentzako literaturan sar genezake, eta gainera, nobela hau oso serioa eta kultura handikoa ez dela esan ahal da.

Pasarteak

Lehen pasarte

"Animaliak erosten ditugu

Arratoi, txori txiki eta antzekoak: euro bat

Bestelako hegaztiak: euro bi

Lau hankadun animalia handiagoak: hiru euro

Ezinbestekoa da bizirik egotea

Animaliak uzteko lekua: Barrualde kaleko Manila kafetegia

Txundigarria, bai -esan zuen Etxebek-. *Manila*-ri kafetegia deitzea ere! Hori da larru gogorra! Nahi lukete bertako zerritonek kafetegi baten lan egin! (...)

Eztabaida horretan zihardutela, gizon gazte bat pasatu zen bikotearen aurretik korrika, ziztu bizian. Besapean kanitxe bat zeraman, eta atzetik andre baten kexu oihuak aditzen ziren: `lagundu, mesedez, ene txakurtxoal´

-Esaten dut nik, bai: lapurrak, gaizkileak, alferrak... noraino helduko ote gara?" (36-37. orr.)

Lehenengo pasarte honetan argi ikusten da detektibe hauek nahiko traketsak direla, begi-bistakoa dena ez dutelako ikusten. Izan ere, pasarte honetan ikus daitekeenez, lapur batek txakurtxo bat lapurtu du Manilan saltzeko, eta detektibeek ez dute ikusi irakurri berri duten iragarki horren eta lapurraren arteko erlazioa. Beraz, bere aurretik igaro den lapur horrek haiek ikertzen ari diren kasuarekin erlazio handia du eta detektibe hauek ez dira konturatu.

Bigarren pasarte

"-Ematen duzun baino tentelagoa zara -isilaldi txikia egin zuen jarraitu aurretik-. Zuk ez dakizu zer gertatu ahal zaigun hemen zure txizaren tanta ñimiño baten erruagatik?"

-Ez -erantzun zuen burusoilak, nahasturik.

-Mamorroak zure eskuetako txizaren usaina hartzen badu, gureak egin du.

-Ze lelokeria da hori?"

-Ez da lelokeria. Mundu guztiak daki, zuk izan ezik, animaliek euren eremua mugatzeko erabiltzen dutela txiza. Baliteke mamorroak desafiotzat hartzea zure usaina eta, hemen indartsuena bera dela erakusteko, atea amorruez hondatu, gela honetara pasatu eta... -ez zuen besterik esan Dorinek. Kasiani tinko begira geratu zen." (58. or.)

Pasarte honetan ikus daitekeenez, suga zaintzen dauden bi errumaniarrak pixka bat erotuta daude sugearekin. Izan ere, egun batzuk daramatzate gelaxka horretan itxita, suga zaintzen, eta horren ondorioz pixka bat asaldatuta daude, zeren eta bizpahiru orrialde geroago elkarrekin borrokatzen dira txakurtxo bat maskota bezala hartzeko orduan.

Hirugarren pasarte

"-Zelako gosea -esan zuen Etxebek.

-Bai, lagun, baina etxean askoz hobeto afalduko dugu kobazulo horretan baino.

-Hori ere egia da.

-Zain izango ditugu gure aingerutxoak, afaria prestatzeko gertu. Nolako zorte ona dugun!

-Arrazoi duzu, nagusi.

-Harribitxiak ditugu etxean, eta ez ditugu behar adina baloratzen. Horrelako emakume gutxi geratzen dira jada. Edozein ordutan iritsita ere, beti mahai gertatu eta jatekoa emateko prest, arduratsu, keinu txarrik gabe." (95-96. orr.)

Horretan argi eta garbi ikusten da bi detektibe hauen bizimodua. Oraindik beren gurasoekin bizi dira, ez baitute emazterik (ezta izateko asmorik ere, momentuz) eta jateko orduan haien kontura jaten dute, edozein umek bezala. Honela, autoreak barregarri uzten ditu detektibeak direla esaten duten bi figura horiek.

Laugarren pasarte

"-Mustafa? -moztu zuen Artabek-. Hori ez da mairu izena?"

-Horixe itaundu diot nik eta badirudi ez diola graziarik egin, ze kolpeka hasi da segituan, beste barik. (...)

-Dena dela -erantsi zuen detektibeak-, susmagarria da informatzaile misterioitsuak ere Mustafa izena edukitzea, ezta, Etxebe?"

Gizontzarrak gogoeta egin zuen pixka baten, erantzun aurretik:

-Apur bat bai -esan zuen azkenean.

-Ez dakit zer pentsatu, kasualitate hutsa den ala ez, mairu guztiek baitaukate izen bera: Mustafa edo Mohammed, eta orain txinatarrak ere hasi badira izen horrekin... " (125. or.)

Azken pasarte honetan ikusi ahal dugunez, berriro ere gertatzen da gauza bera, hau da, bi detektibe hauek ez dira konturatzen irakurleontzat begi-bistakoa den zerbaitez. Oraingo honetan Mustafa deitzen den txinatar batek Artaberi mugikorrera deitu dio haiek zeuden taberna beretik, gero irten da eta bere arrastoa jarraitu duen Etxeberi jipoi bat eman dio. Hala eta guztiz ere, bi detektibe hauek ez dira konturatu Etxeberi jipoa eman dion pertsonaren eta Artaberi deitu dion pertsonaren arteko loturaz, hau da, pertsona bera zela.

Iritzia

Suge baten bahiketa baten inguruan koka genezake eleberri beltz hau, baina ez genituzke ahaztu behar kasu hau ikertzen duten bi detektibe trakets eta barregarriak.

Obra honen hiztegia nahiko arrunta da, nahiko herrikoia baita, eta herriko hizkerako hainbat hitz aurki genezake, hala nola: "melapela", "akojonatuta", "keleden", etab.

Nire ustez, nobela honen karakteristika nabarmen bat zera da, idazleak pertsonaia bakoitzaren hitz egiteko moduari nahiko ondo egokitu duela; izan ere, Artabe detektibeak, Etxebe laguntzaileak, Baltasar informatzaileak eta Pilar Ladron de Gebara andre aberatsak ez dute hitz egiteko modu bera, eta hauetako bakoitzaren hizkera oso ondo moldatu du obra honen egileak. Bestalde, obra honen erritmoa nahiko bizia dela esan behar da.

Obra honetako baliorik interesgarrienak, nire iritziz, pertsonaien karakterizazioa eta irakurgaiaren erakargarritasuna dira. Azkenik, gauza hauek guztiak gogoan hartuta, liburu hau nahiko interesgarria dela pentsatzen dut.

Bibliografia

- *Manila konexioa*. Jon Arretxe. Elkar.
- www.elkarlanean.com